

MANUEL IGNAZIO SANTA KRUZ LOIDI "Santa Kruz apaiza" (Elduain, 1842 – Pasto (Kolonbia), 1926)

Familia **xume** batean jaio zen eta oso gazte geratu zen umezurtz. Hala ere, Gasteizko seminarioan sartu zen eta bertan apaiztu zen.

Hernialdeko erretore zen 1868ko iraultza hasi zenean, eta **karlismoaren propagandista** egin zen. 1870. urtean atxilotu zuten, baina Frantziara alde egitea lortu zuen. 1872ko apirilean, muga zeharkatu eta gerran murgildu zen, **talde txiki baten buruzagi**. Urte hartan bertan, abuztuan, atxilotu egin zuten. Ihes egin ostean, Frantzian aterpetu zen berriz, baina abenduan muga zeharkatu zuen berriro. **Bere ihesaldiak tarteko, kondaira bilakatu zen**. Gipuzkoan aritu zen borrokan, eta bere ausardia eta ankerkeria zirela eta, gerrillen buruzagi karlista ezagunenetakoa izan zen.

Karlosek Lizarraga jenerala tropen komandante izendatu zuenean, Santa Kruzek ez zuen onartu eta **bere kabuz hasi zen borrokan "erlijioaren eta foruen izenean"**. Buruzagi militarrei aurre egin ondoren, karlistek berek atxilotu zuten, baina berriz ere alde egitea lortu zuen. 1873ko martxoaren 17an, **Lizarragak heriotza zigorra ezarri zion**. Horren ondorioz, bi bandoak zituen jarraika. Ekainean, **Endarlatsako** mugazainen postuari eraso egin zion, eta **bizirik atera ziren guztiak fusilatzeke agindua eman zuen**. Izugarrikeria hark Karlos sutan jarri zuen. 1873ko uztailaren 9an, Santa Kruzek bere burua inguratuta ikusirik, muga zeharkatu behar izan zuen. Abenduan berriro itzuli zen, Lizarraga garaitzeko asmotan, baina **garaitu zutenez, behin betiko erbesteratu behar izan zuen**.

Elizak egindako izugarrikeria guztiak barkatu zizkion eta Jesusen Lagundian sartu zen. **Misiolari aritu zen Jamaikan eta Kolonbian, azken herrialde horretan hil zelarik**.

Santa Kruzen balentriek misterio-kutsua eman zioten, eta kondaira bilakatu zen: Euskal Herriko karlistaldietako **pertsonaia mitikoa**.